

M.U.-n titulua eskuratutako ikasleen %5,7-a bakarrik dago langabezian, Eusko Jaurlaritzak egindako txostenaren arabera

2006/07/06

Mondragon Unibertsitateko 2002ko promozioko ikasleen enplegu tasa %90,9ean kokatu da, Eusko Jaurlaritzak aurten biztanleria aktiboan sartzeari buruz egin duen txostenean ageri denez.

Hirugarren urtez jarraituta, **Mondragon Unibertsitate**tik atera berriak lanean hasteari buruzko datu positiboak berresten dira, eta ikasleak hartutako prestakuntzaren inguruan oso pozik daudela erakutsi da.

Ikasketak amaitu eta hiru urteren buruan, 2002ko promozioko ikasleen (696 ikasle) gaur egungo egoerak islatzen duenez, **%90,9** lanean ari dira, **%5,7** langabezian daude eta **%3,4k** ikasten jarraitzen dute. Horrek esan nahi du enplegarritasun maila ia erabatekoa dela, izan ere, 2002ko promoziotik soilik **%1,1**ek ez du inoiz lan egin –7 pertsona-, hau da, lanean hasitakoak **%98,9** izan dira.

Halaber, azterketak erakusten du lehenengo enpleguaren bila batez beste emandako denbora **3,4 hilabete** dela, eta promozioaren **%38k** dagoeneko lan egiten zutela karrera egin bitartean edo amaitu aurretik, eta horrek esan nahi du hiru tituludunetik batek graduatu aurretik laneko esperientzia bazuela.

Bat datorren enpleguaren mailari buruz –hau da, enplegua eta egindako ikasketak bat etortzea–, bilakaera oso positiboa da eta **%89ra** iritsi da, aurreko promozioan baino ia 6 puntu gehiago.

Azterketak erakusten duen beste datu garrantzitsu bat da enplegura iristeko bidea, unibertsitatearen zeregin garrantzitsua nabarmentzen delarik: tituludunen **%28** inguruk onartzen dute unibertsitatea izan dela enplegu batera iristeko bidea, aurreko urtean baino 4 puntu gehiago.

2002an **Mondragon Unibertsitatean** titulua eskuratutako promozioaren **Biztanleria Aktiboan Sartzeari buruzko Inkesta** Eusko Jaurlaritzako elkarte publikoa den eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Saileko menpekora den Egailaneko Lan Merkatuaren Behategiak egin du, joan den maiatzean.

Titulua lortutako lan erradiografiaren arabera, %50 nazio arloko enpresa pribatuetan ari ziren lanean, %21,50 kooperatibetan ari ziren, %12 baino pixka bat gehiago enpresa pribatu multinazionaletan eta %15 inguru enpresa publikoetan, Gainerakoek eremu publiko-pribatuko enpresa mistoetan ziharduten.

Gaur egun, unibertsitate honetan **4.073 ikasle** ari dira ikasten, graduako formazioan zein graduatu ondokoan. Unibertsitatearen eskaintza akademikoa osatuz, gainera, graduako 25 titulazio eskaintzen dira, ingeniartzaren, enpresaren eta hezkuntzaren arloei lotuak.

Mondragon Unibertsitatean titulututakoak lanean hasteko maila altuak agerian jartzen du unibertsitateak eta enpresa sareak lotura estua dutela, eta agerian jartzen ditu, halaber, unibertsitateak prestakuntza laneko beharretara egokitzeko egiten dituen ahaleginak, etengabe eboluzionatuz.

